

AGURRA

Urtero bezala, esku artean duzue 2013ko urtekaria. Hemen herritar askoren lan eta gogoeta interesgarriak aurkituko dituzue, gure herriaren historia, aspaldikoa zein hurbilekoa, urtean zehar notizia izandako gertakariak edo herriko elkarteek egiten duten lanaren berri izateko baliagarria den argitalpena.

Aurten ere baditugu aipagarriak izan diren gertakariak, adibidez Zubietako errauste planta proiektua betirako bertan behera geratu izana, Aldundiak eta erraustegia eraiki behar zuten enpresen arteko akordioa sinatu ondoren. Denon ahaleginari esker, hamar urte baino gehiagoz Gipuzkoan izan dugun mehatxua desagerrarazi dugu; herritarrek egindako apustu politikoaren emaitza da, herritarren garaipena, guztiok egindako lanaren garaipena.

Bestalde herri mailan, kirol instalakuntzen inguruko hausnarketa prozesua egin dugu, bertan banakako herritarrek eta eragile desberdinek parte hartu dutelarik. Kirolaren eta jarduera fisikoaren ikuspegia aberastu eta osatu dugu, esparru honek duen eragin zabalarekiko hausnarketa interesgarriak eman direlarik. Hemendik aurrerako plangintza zehaztu dugu eta Udalak aurrerantzean gauzatuko dituen ekintzak bideragarri egiteko konpromisoa hartu du.

Aipatzekoa da ere bai Udalak eta Berriak Merkatari Elkarteak martxan jarritako "Hernani txartela". Txartel honekin herriko zein edozein lekutako komertziotan erosketak egiteaz gain, kiroldegira sartzeko aukera ematen du eta liburutegirako bazkide txartel bezala funtzionatuko du.

2013 urtean Hernanin unibertsitate mailako ikasketa zentro bat inauguratu dugu. Mondragon Unibertsitateak ingeniari-tza bi titulazio berri eskaini ditu ikasturte honetatik aurrera, titulazio berri horiek honakoak dira: energia ingeniari-tza eta prozesu industrialetako ekoteknologiako ingeniari-tza.

Bukatzeko, urtekarian jasotako lanen egileak eta irakurgai interesgarri hauek argitaratzeko lanean aritu diren guztiei, gure herriko kronika jasotzen laguntzeagatik eskerrak eman nahi dizkiegu, eta zuei irakurle zaretenei tarte atsegina bat igaro dezazuen opa nahi dizuegu.